



2010/01/11ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2009ko 3. hiruhilekoa

Eraikuntza berriko etxebizitzaren eraikuntzaren aurreikuspenak behera egiten jarraitu du 2009ko hirugarren hiruhilekoan.

Aurreikusitakoaren arabera, 1.288 etxebizitza eraikiko dira, hau da, bigarren hiruhilekoan baino 650 gutxiago eta 2008ko hirugarren hiruhilekoan baino 418 gutxiago. Bizkaian, eraikuntza-aurreikuspena ia gelditu egin da hirugarren hiruhilekoan: aurreikusitakoaren arabera, eraikuntza berriko 38 etxebizitza baino ez dira eraikiko.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak landutako Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikak adierazten duenez, hirugarren hiruhilekoan eraikuntza berriko 1.288 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, hau da, joan den urteko aldi berean baino % 24,5 gutxiago eta 2009ko bigarren hiruhilekoan baino % 33,5 gutxiago.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2009.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikaarako Organo Berria

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Aurreikusitakoaren arabera Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikiko diren eraikuntza berriko etxebizitzak % 59,3 (764 etxebizitza) Araban eraikiko da.

Gipuzkoan, berriz, 486 etxebizitza eraikiko dira, hau da, guztien % 38,2. Azkenik, Bizkaia minimo historikoetara iritsiko da. Izan ere, 38 etxebizitza baino ez dira eraikiko, hau da, gure erkidegoan aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitza guztien % 3.

Arabian, aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitzak % 92,5 Arabako Lautadan eraikiko dira. Gipuzkoaren kasuan, berriz, % 29,4 Tolosako eskualdean eraikiko dira. Azkenik, Bizkaian, % 65,8 Bilbo Handian.

Aurreikusitakoaren arabera, Gasteizen eraikuntza berriko 704 etxebizitza eraikiko dira, hau da, Autonomia Erkidego osoan eraikiko direnen % 54,7 eta Araban eraikiko direnen % 92,1. Gasteizen atzetik, honako hauek ditugu: Bergara (122 etxebizitza, hau da, Erkidegoko guztien % 9,5), Zizurkil (109 etxebizitza, % 8,5), Ordizia (90, % 7) eta Orio (77, % 6). Aurreikusitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik 39tan baino ez da etxebizitza berriak eraikiko (hau da, 6tik batean).

Bestalde, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz gero, etxebizitzak birgaitzeak % 17,8 egin du behera. Era berean, behera egin du konparazioa aurreko hiruhilekoarekin egiten badugu. Urteko bigarren hiruhilekorako aurreikusitako birgaitzeak 204 izan ziren, eta kopurua 125ra jaitsi da (% 38,7 gutxiago).

Euskadiko udalek 2009ko hirugarren hiruhilekoan emandako obra handiko lizentzien kopurua 2008ko aldi berean emandakoena baino % 23,7 txikiagoa izan da.

Udalek onartzen duten obra handiko lizentzien kopurua (publikoa ez den eraikuntzaren sektorearen egoeraren adierazle gisa erabili ohi dena) 499era iritsi da 2009ko hirugarren hiruhilekoan.

Lautik ia hiru –% 72,1– birgaitzeko lizentziak izan dira, % 25,3 eraikuntza berriko eraikinak eraikitzeko lizentziak, eta % 2,6 eraispenak egiteko lizentziak (13 guztira).

Arabian obra handiko 213 lizentzia eman dira, Bizkaian 189, eta Gipuzkoan 97. Gipuzkoaren kasuan, eraikuntza berriko etxebizitzak eraikitzeko lizentziak lurraldeko lizentzia guztien % 38,1era iritsi dira (% 24,9ra Araban eta % 19ra Bizkaian).

Eraikuntzan izandako beherakadak Gipuzkoa eta Bizkaia hartu ditu eraginpean bereziki. Araban, berriz, txikiagoa izan da beherakada.

Bizkaian, emandako lizentziak 2008ko hirugarren hiruhilekoan baino % 33 gutxiago izan dira, Gipuzkoan % 28,7 gutxiago, eta Araban % 9,7 gutxiago.

Bizkaian, lizentzien % 72 Bilbo Handian eman da. Araban, berriz, lizentzien % 65,7 Arabako Lautadan eman da. Azkenik, Gipuzkoan, lizentzia guztien % 23,7 Donostiako eskualdean eman da.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika-ko Organo Berria

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADÍSTIKA EAE-N		2009ko 3. hiruilekoa		Aurreko hiruilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	499	100,0	-27	-5,1	-155	-23,7
	Oin berriko eraikinak	126	25,3	-28	-18,2	-90	-41,7
	Birgaitzeak	360	72,1	0	0,0	-64	-15,1
	Eraispenak	13	2,6	1	8,3	-1	-7,1
Araba	Guztira	213	100,0	16	8,1	-23	-9,7
	Oin berriko eraikinak	53	24,9	-11	-17,2	-46	-46,5
	Birgaitzeak	156	73,2	28	21,9	21	15,6
	Eraispenak	4	1,9	-1	-20,0	2	100,0
Bizkaia	Guztira	189	100,0	-18	-8,7	-93	-33,0
	Oin berriko eraikinak	36	19,0	-6	-14,3	-35	-49,3
	Birgaitzeak	152	80,4	-10	-6,2	-54	-26,2
	Eraispenak	1	0,5	-2	-66,7	-4	-80,0
Gipuzkoa	Guztira	97	100,0	-25	-20,5	-39	-28,7
	Oin berriko eraikinak	37	38,1	-11	-22,9	-9	-19,6
	Birgaitzeak	52	53,6	-18	-25,7	-31	-37,3
	Eraispenak	8	8,2	4	100,0	1	14,3
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		0	0	0	0,0	0	0,0
EAE	Guztira	1.413	100,0	-729	-34,0	-445	-24,0
	Oin berriko eraikinak	1.288	91,2	-650	-33,5	-418	-24,5
	Birgaitzeak	125	8,8	-79	-38,7	-27	-17,8
Araba	Guztira	793	100,0	56	7,6	-46	-5,5
	Oin berriko eraikinak	764	96,3	159	26,3	-46	-5,7
	Birgaitzeak	29	3,7	-103	-78,0	0	0,0
Bizkaia	Guztira	104	100,0	-586	-84,9	-407	-79,6
	Oin berriko eraikinak	38	36,5	-624	-94,3	-379	-90,9
	Birgaitzeak	66	63,5	38	135,7	-28	-29,8
Gipuzkoa	Guztira	516	100,0	-199	-27,8	8	1,6
	Oin berriko eraikinak	486	94,2	-185	-27,6	7	1,5
	Birgaitzeak	30	5,8	-14	-31,8	1	3,4

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago izateko:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Faxa: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak Interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>

WEBGUNEAK: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>